

BERTSOAK / VERSOS

NUEVOS VERSOS COMPUESTOS POR TXIRRITA

1/ Hace ahora así como dos mil años que empezaron los romanos a intentar hacerse con nuestras siete provincias; los aldeanos¹ de aquella época tenían el genio vivo, con pena se arrojaron al abismo e hicieron añicos sus huesos, bien lastimosos debieron de ser los gemidos de aquél momento.

2/ Los viejos guerreros de aquél tiempo eran hombres honrados: ganados en acciones vestían sus graduaciones;² de sesenta y cuatro años incluso había soldados, el dinero a nadie engañaba tal y como sucede hoy día, Lekobide y Osoban eran los jefes de Cantabria.

3/ Aquellos abuelos qué pensaron en su último morir que no lo sabremos nunca lo llevo en el corazón con pena; de noche el frío en las guardias, de día engañando al hambre, cuánto debieron sufrir en la cruz del monte Ernio, dignas de escuchar serían sus oraciones de aquellos días!³

4/ Los abuelos de los padres de los tíos de las abuelas de las madres de nuestras tías, hombres que se anduvieron en la defensa de nuestros fueros; ganada la batalla de aquí marcharon seguido a Roma,

BERTSO BERRIYAK TXIRRITAK JARRIYAK

1/ Orain bi milla urte inguru bezala ziran asiyak erromatarrak berendu nairik gure zazpi probintziyak; garaia artako abarkadunak ziran jeniyo z biziya, baziran penaz amildu eta beren ezurak autsiyak, lastimosuak izango ziran aien orduko antsiyak!

2/ Denbora artako gerrero zarrak ziran gizon onraduak: aziyuetan irabazita jazten zituzten graduak; irurogei ta lau urtekuak bazebiltzan soldaduak, orain bezela etzuen iñor engañatutzen diruak, Lekibide ta Osobal ziran Kantabria'ko buruak.

3/ Aitona oiek zer pentsatu zuten azkeneko eriyotzian ez genduela jakiñ izango pena daukat biyotzian; arrats guziyak itzak guardiyan, egunaz erdi gosian, zenbat naigabe sufritu zuten Erniyo'ko gurutzian, aien orduko oraziyuak ederrak izango zian!

4/ Gure izeben amen amonen osaben aiten aitonak, emen fueruak defenditutzen ibilitako gizonak; bertan batalla irabazita gero Erroma'ra joanak,

¹ Abarkadunak: el que viste abarcas (abarka + dun), es decir, los campesinos, aldeanos.

² Se refiere a que los grados militares que ostentaban bien ganados los tenían en las acciones de guerra en las que tomaban parte.

³ Aquí podría haber una doble intención, es decir, los más que posibles juramentos de aquellos viejos guerreros que se hallaban en una difícil situación...

⁴ Otra vez se pone de manifiesto el fino humor de Txirrita.

⁵ Alude a la necesidad de unirse para clarificar el camino, "la marcha", a seguir.

allí perdió Octaviano
sus más íntimos allegados;
donde hay grandes malvados
pagan pequeños hombres buenos.

5/ Nuestras siete provincias
más extensas que una rosa,
como en una huerta yacen
todas de flores vestidas:
cuatro, sirvientes de España;
otras tres las tiene Francia,
por culpa de un rufián
se fueron todas al traste,
si lo viese en el otro mundo
bien le daría las gracias!⁴

6/ Hemos sido perseguidos
en el pasar largo de años,
muchos había que querían mandar
en la zona de Cantabria,
enterrando bajo tierra
hermosas flores sin mancha;
buen respeto nos guardaban
cuando Lartaun aún vivía,
estamos todavía a tiempo
intentémoslo de nuevo.

7/ Sigamos a nuestro grupo,
permanezcamos aquí,
tengo muchos motivos
que bien tengo a decir:
a no ser que me engañe
también en Euskal Herria hay
quienes no quieren siquiera escuchar
ni nombrar a Cantabria;
siete familias de un mismo padre
no nos podemos unir.

8/ Siete familias de un mismo padre
todas euskaldunes de bien,
ovejas ramificadas
del rebaño del mítico Tubal,
ni la mitad saben
quiénes eran sus abuelos;
pero dejemos los senderos oscuros,
y busquemos la luz,
para que Cantabria vuelva a llamarse
como se llamó siempre.

9/ Hoy día tenemos a nuestro

Octaviano'k galdu zituen
berebiziko lagunak;
aundi gaiztuak diran tokiyan
pagatzen du txiki onak.

5/ Arrosa baño zabalagoko
gure zazpi probintziyak,
baratza eder bat bezela zauden
guziyak lorez jantziyak;
lau España'n morroi gaudenak,
iru an ditu Frantziya'k,
gizon gaizto bat dala mediyo
ondatu giñan guziyak,
beste munduan ikusten badet
eman biazkat graziyak!

6/ Persegituak izandu gera
juan da zenbat urtian,
asko zebiltzan agindu nairik
Kantabria'ko partian,
mantxa gabeko lora ederrak
estalirikan lurpian;
errespetua guardatzen zuten
Lartaun emen zan artian,
oraindik ere denbora dago
berriro saia gaitian.

7/ Geren sallari segi zaiogun,
ez bestetara mugitu,
motiborikan asko badaukat
ongi esango nai banitu:
ni engañatzen ez baldin banaiz
Euskal-Erriyak baditu
Kantabria'ren izenik ere
nai ez dutenak aditu;
zazpi senide aita batenak
ezin gerade unitu.

8/ Zazpi senide aita batenak
danak euskaldun garbiyak,
Tubal zarraren artaldetikan
banatutako ardiyak,
aitan aitona nungua zuten
ez dakitenak erdiyak;
utzi ditzagun bide illunak,
billa ditzagun argiyak,
beti-betiko bere izena
izan dezan Kantabriya'k.

9/ Beren idea beste gauzarik

alrededor a tantos hombres
que no tienen en la cabeza
sino su propia idea;
se les dice quién es el dueño
de esta Cantabria nuestra,
y enseguida nos toman la contraria
como tercios que son;
podemos entonces decir
que no son nuestros hermanos.

10/ Si la letra impresa de nuestros
antepasados es cierta y verdadera,
las siete provincias del euskara
son de nosotros, los Cántabros;
la intención que guarda mi corazón
siempre busca la paz,
no podríamos llevar
por muchos caminos una sólo marcha,
veamos cuál es el mejor
y unámonos todos en él.⁵

11/ Siete familias de un solo padre
que estén aquí todas tristes
nos ha tocado en desgracia,
y aún nos parece imposible;
aman a todos aquellos llegados
solícitos de lo que tienen otros,
algún día bastante airados
llegarán a vernos,
sepan que el nombre que llevamos
no lo tenemos en vano.

12/ Sin haber vivido en este mundo
no queremos ir al otro,
con mentiras no se puede de allí
regresar aquí;
sin razón nos dieron
una norma contraria a ley,
además otra vez se oye
que el euskara se habrá de perder,
si no les plantamos cara
para esos no somos nada.

13/ Los pobres pollitos están
bajo una mala gallina clueca;
de diez cinco mueren,
los otros cinco cojos:
temerosos de las malvadas fieras siempre
mirando hacia arriba,
cuerpos de poca fortaleza y

ez daukatenak buruan,
gaurko egunian alako asko
baditugu inguruan;
esaten zaie Kantabria onek
bere jabia nor duan,
kontra egiten asten zaizkigu
setosuaren moduan,
geren anaiak ez ditugula
esan gentzake orduan.

10/ Baldiñ egiyaz egiña bada
aurreko zarren papera,
zazpi probintzi euskerazkuak
Kantabriatarrak gera;
nere biyotzak daukan asmua
beti dioa pakera,
bide askotatik martxa zuzenik
ezin gentzake atera,
onena zein dan ongi neurtuta
bildu gaitezen batera.

11/ Zazpi senide aita batenak
egotia emen triste
fortunatu da desgrazi batez
bañan ez genduan uste;
maitatzen dute etorri dana
besteren gauzaren eske,
egunen batez aserre samar
ikusi bihar gaituzte,
jakin dezaten bagerala gu
izena degun hainbeste.

12/ Mundu onetan ezin bizita
ez degu joan nai bestera,
gezurra esanda ez dago andik
etorritzerik ostera;
arrazoi gabe eman ziguten
lege kontrako jazkera,
gañera berriz kontari daude
galduko dala euskera,
gogor egiten ezpazaiote
oientzat aña ez gera.

13/ Kolka txarraren azpiyan dauden
txito urrikalgarriyak,
amarretatik bost iltzen dira,
beste bostak elbarriyak:
pizti gaiztuen bildurrez beti
bora begira jarriyak,
indar gutxiko gorputzak eta

suspirar continuo;
bajo este castigo vivimos
hoy día los pueblos de Euskal Herria.

suspiriyuak berriyak;
kastigu onen mendian bizi
gera gaur euskal erriyak.

(1931)
EL OFICIO⁶ DE ESTE MUNDO

1/ El oficio de este mundo nuestro
para todos es breve,
las bajas pasiones nos arrastran,
de ahí viene el vicio;
en muchos lugares puede verse
al ladrón haciendo guardia al ladrón;
igual con los animales,
así el gato y el perro;
aquél desea mucho y no puede sufrir
lo poco que los demás tienen.

2/ En un armario viejo pude
ver esta experiencia:
nuestra Pepita en un descuido
dejó las puertas abiertas,
la gata Moñoña rápida se metió dentro
con bigotes y todo,
ahogado el ratón se llevó la morcilla,
huyendo a la techumbre, arriba...
También entre los animales
el mayor ladrón se impone.⁷

3/ A muchos vagos les gusta
comer lo que los demás preparan,
cualquier conveniencia es buena para él
y para el pobre sólo daño;
apresan a los ladrones de poca monta
y además les encadenan;
dan libertad al pez gordo,
siempre con la puerta abierta...
¿También así suprimieron
los fueros de Cantabria?

4/ La marcha que lleva este mundo
no me gusta en absoluto,
es más fácil juzgar
que comportarse a razón;
para el pobre, amenaza,
le hace arrugar la frente,
aun escuchando buenos sermones
no se apuran en exceso,
toman presos a ladroncillos sin pena

(1931)
**MUNDU ONTAKO BIZI-
MODUA**

1/ Gure munduko bizi-modua
guziyentzat da laburra,
grña gaiztuak tiratzen gaitu,
ortatik dator makurra;
leku askotan ikusi oi da
lapur guardiyan lapurra;
animaliya ere igual
katua eta zakurra;
berak asko nai t'ezin sufritu
bestek daraman apurra.

2/ Armariyo zar batian nuen
esperientziya ikusi:
gure Pepita deskuidatuta
atia zabalik utzi,
katu Moñoña azkar sartu zan
bere bigote ta guzi,
sagua itota odolkiya artu,
goiko sapaira igesi...
Animaliyen artian ere
lapur aundiya nagusi.

3/ Alper askori gustatzen zaio
bestek egiña jatia,
berentzat zernai komenentzi ta
pobriarentzat kaltia;
lapur txikiyak preso sartuta
gañéra berriz katia,
aundiarentzat libertadia,
beti zabalik atia...
kantabria'ko fueruak ere
olaxe kenduak tia.

4/ Mundu onetan dijuan martxa
etzait askorik gustatzen,
biar bezela portatzen baña
errezago da juzgatzen;
pobriarentzat amenazua,
kopeta dute beztutzen,
sermoi ederrak aditu arren
ez dira asko estutzen,
lapur txikiyak preso sartuta

⁶ “Bizimodua” tiene hoy día las siguientes acepciones: 1) modo de vida, estado; 2) oficio, sustento.

⁷ “Nagusi” también quiere decir “patrón”, “dueño”... ¿Hay una doble intención...?

mientras otros roban millones.

5/ Para castigar a los ladroncillos
en cualquier sitio hay una cárcel,
sin piedad y durante años
los meten a la sombra,
diciendo que paguen allí
las acciones incorrectas;
los grandes ladrones andan libres,
se pasean,
no si amáramos al prójimo
como a nosotros mismos.

6/ También el perro contra los ladrones
pasa la noche ladrando,
pone en aviso al amo
abriendo fuerte la boca;
sabe dónde está el matadero,
y acudirá muchas veces allá;
tienen nariz con buen olfato,
los oídos en alerta,
buenos trozos se llevará
en cuanto alguien se descuide.

7/ ¿No habéis visto
lo que sucede en el mar?
La sardina fresca y la anchoa
huyen del delfín;
no aguanta más en el fondo
y sube a la superficie;
allí los pescadores se apresuran
a capturarlo en sus redes;
excepto el alma, los pobres
así vivimos hoy día.

8/ Entre nosotros una cosa hay
terriblemente fea:
disponer de buena vista
y no poder ver a nadie;
el que tiene a los jueces de su parte
gana el juicio,
y entonces le hará
todo lo que él quiera;
el pérfido en sus manos tiene
la vida del hombre bueno.

9/ También la marsopa se come al pez chico,
ejemplares del tamaño de un boquerón;
se tragan toda la bandada,
terribles comilones son;

berak milloiak ostutzen.

5/ Lapur txikiyak kastigatzeko
non-nai badago kartzela,
kupira gabe ematen zaio
denbora askoko itzala,
esanaz egindako okerrak
antxen pagatu ditzala;
aundiyak libre ikusten dira
pasiuan dabiltzala,
ez projimua maite bagendu
gere burua bezela.

6/ Zakurrak ere lapurren kontra
zaunkaz pasatzen du gaba,
nagusiyari adierazten
fuerte zabalduaz aba;
mataderiya non dan badaki,
maiz asko juango da ara;
usai oneko sudurra dute,
belarriyak erne para,
puska galantak artuko ditu
ñor deskuidatzen bada.

7/ Itsasuan zer gertatutzen dan
ez al dezute ikusi?
Txardiñ berriya eta antxua
izurdiaren igesi,
azpiyan eziñ aguntatu ta
gañera irten-arazi,
an ere arrantzaliak pronto
beren sare eta guzi;
animo salbo jende pobria
gaur olaxe gera bizi.

8/ Gure tartian gauza bat dago
izugarri itsusiya:
begiyetako bista ona ta
ñor ezin ikusiya;
juezak alde daukazkiyenak
irabazten du auziya,
eta orduan egingo diyo
berak nai duan guziya;
aundi gaxtuak nai duen arte
txiki onaren biziya.

9/ Mazopak ere txikiya janaz
bokoia añako aliak,
banda osua tragatzen dute,
izugarrizko jaliak;

se amoldan a la conveniencia y
gustan de buenos bocados,
toman venganza de
aquellos que no tienen culpa,
y cuando menos lo esperan
así tragan las balas.

10/ La ballena es la más grande
de entre todos los peces,
pocas veces se arrima a la costa,
prefiere la soledad;
han quedado algunos ejemplares
en la zona Cántabra:
esas tres o cuatro
en el año cuarenta transcurrido
hermosos días pasan
hasta que les clavan el arpón.

11/ Os aprecio, presidentes,
ministros, diputados,
conseguid los grados
a base de hacer bien las cosas;
en estos tiempos vosotros sois
los dirigentes de España,
no merecen desprecio
ni la Iglesia ni el clero,
nosotros amaremos la república
pero si nos dais los fueros.

12/ Hijo de Arri-Urdiñeta,
¡ay! si vivieras ahora,
aún después de muerto te amamos
más que a nadie en esta tierra;
hace cincuenta y seis años
nos abrieron el afán;
una escritura en Hernani se halla
verdadera y real,
ésta es la hazaña que Juan de Urbietta
hizo en Pavía.

komenentziya badaukate ta
modau onen zaliak,
mendekuari ematen dizka
kulparik gabe daliak,
uste gabian berak laxe
tragatzen ditu baliak.

10/ Balia dute aundixkuena
arrai guziyen tartian,
kostara bakan arrimatzen da,
naiago du apartian;
ale batzuek gelditu dira
Kantabria'ko partian:
iru edo lau inguru ori
juan dan berrogei urtian;
egun ederrak pasatzen ditu
arpoia sartu artian.

11/ Maite zaituztet, presidentiak,
ministro, diputatuak,
biar bezela gauzak egiñaz
izan tzizute graduak; (sic)
garai onetan zuek zerate
España'ko buruak,
despreziyoric ez du merezi
Elizak eta kleruak,
guk republika maiteko degu
bañan ekarri fueruak.

12/ Arri-urdiñetako semia,
ai oraiñ bizi baziña,
ill da gero're maite zaitugu
munduan iñor ez aña;
orañ berroi ta hamasei urte
sortu ziguten kuziña;
eskritura bat Ernani'n dago
egiyazkua ta ziña,
ori da Juan de Urbietta'ren
Pavia'ko azaña.

AITA MARI - I

En el mes de marzo de
mil ochocientos nueve
nació Joxe Maria Zubia
en el regazo del puerto de Zumaia;
siendo hijo de pescadores
atrapado en el lazo
hubo de iniciarse desde pequeño
no precisamente a la ligera
en las tareas del mar
dedicado a la pesca de la anchoa.

Ya de joven su cuerpo fue
adquiriendo robustez y fuerza
aunque la medida de los hombres
no se mide por su tamaño;
joven se inició en una
rápida fragata de tres mástiles,
joven reunió un dinero y
a base de esfuerzo
joven llegó a Donostia
patrón de barcos.

Corría el año mil ochocientos
sesenta y uno
la tormenta acometió implacable
la zona de la Zurriola;
al pie de Urgull, en las rocas desnudas,
muy lejos del puerto
diez hombres pasaban gran apuro
entre la espuma y el furor de las olas;
si Mari no se lanza intrépido al rescate
bajo las aguas se hubieran ahogado.

Medio siglo sobre sí y
por el camino andado, envejecido,
los dones del destino así tenía
siempre al rescate de los extraviados;
en cuanto barruntaba a alguien en apuros
a la deriva arriba y abajo
allá se dirigía y si acaso erraba
volvía sobre sus pasos
dueño y señor de las enfurecidas aguas
como si un Poseidón fuera.

AITA MARI - I⁸

Milla zortzireun da bederatz
garren urteko martxuan
jaio zan Joxe Mari Zubia
Zumaiako kai altzuan
arrantzalien seme izaki
atrapatuta lazuan
bearko ume umetan asi
ez abelera mantsuan
itsasuaren palastadetan
antxuaren arrantzuan.

Gazterik aundi azi zan gorputz
mardul sendo kabalian
gizon tamañak ez tira baña
neurtzen luze zabalian
gazterik asi iru mastako
fragata arin alian
gazterik egin diruak eta
ekiñen egiñalian
gazterik zuan Donsotia jo
untzi patro senalian.

Mailla zortzireun irirogeita
lendabiziko urtian
ekaitzak zakar zuan eraso
Zurriolako partian
Urgull azpiko arkaitz gorritan
kaitik arras apartian
amar bat gizon larriyan zeuden
bits eta aparren artian
suartsu jaso ezian Marik
itoko ziran urpian.

Mende erdi bat gañian eta
egiñagatik zartzera
adur doaiak alakoxeak
beti galduen artzera
inor somatu orduko estu
jitoan aurre atzera
joango zan da erratuz gero
itzuliko zan atzera
ur aserretan jaun eta jabe
Poseidon baten antzera.

⁸ Estos versos, al igual que los anteriores, me los trajo el donostiarra Aitor Badiola a fin de que se los tradujera al castellano y así conocer mejor su significado. Así como los dos primeros eran del célebre bersolari Txirrita, desconozco quién es el autor de estos otros versos dedicados a Aita Mari, el famoso y heroico personaje unido para siempre al puerto de Donostia.

Cinco años más tarde, corría el mes de enero,
justamente el día nueve
el temporal estalló con crudeza
invocando a Beelzebub;
en todo el muelle ¡qué alboroto!
cómo se afanaba la gente
pues cerca de Santa Clara
quienes con temor habían acudido a pescar
se hubieran perdido para siempre
si no hubiera sido por Aita Mari.

Cuando ya llevaba salvados
qué sé yo cuántos
fue a estallar justo encima suyo
la peor de las olas
de modo que se perdió
bajo las aguas furiosas.
Aún cuando en su búsqueda partieron
raudo más de uno
no fue posible traer de nuevo
aquél corpachón con vida.

Bost urtez gero juxtu ilbeltza
bederatzian zanian
zital jo zuan denboraliak
Beltzeburen izenian
molla betian ura ardalla
jendiaren afanian
arrantzalian erabe zebiltzan
Santa Klara aldamenian
galduko ziren Aita Mari ez
agertu izanenian.

Salbaturik bazeramanian
eztakit zenbagarrena
lape gañera lertu zitzaion
baga zuririk txarrena
alako moduz non galdu baitzan
ur arroetan barrena
aren peskizan jardunagatik
batzu batzuek aurrena
etzan izando gorputz tzar ura
jasotzen lanik urrena.

AITA MARI - II

Gigante poderoso por un lado
niño tierno por otro
cómo habremos nunca de olvidar
los donostiarras tus grandes hazañas
habiendo tantos hijos, esposos y maridos
que deben a ti la vida.
Nosotros cantando tus enormes proezas
queremos honrarte, Aita Mari.

En el año de tu muerte te honraron
con motivo de tu homenaje en el muelle.
La gente dejaba a cientos las coronas,
los chistus y tambores con su clamor
hacían enmudecer cualquier otro sonido
y las flores prefirieron otros tronos.
Nosotros al cantar tus enormes proezas
queremos honrarte, Aita Mari.

Sin embargo, si existe la memoria
puestos a sacar juicios y conclusiones
no la gente sería y mayor sino que serán
los niños quienes te vendrán a ver.
En Donostia en los oídos de los niños
muchas veces se escuchan los ecos de las olas.
Nosotros al cantar tus enormes proezas
queremos honrarte, Aita Mari.

El salitre devorará el hierro,
las aguas besarán las playas,
se iluminarán los días de azul
y ensombrecerán los horizontes.
Donostia no te olvidará nunca
hasta que todo se haya extinguido.
Nosotros al cantar tus enormes proezas
queremos honrarte, Aita Mari.

AITA MARI - II

Jigante kementsu alde batetik
umetxo samur bestera
nolaz jo donostiarron aldetik
zure hazaña handien ahaztera
hainbeste seme senar eta aita
zugatik bizirik atera baita.
Guk zure balentriaren galantari kantari
ondratu nahi zaitugu, Aita Mari.

Hil urtean behin ondratu zintuzten
kaian oroigarri bat zela eta
jendeak koroiak zientoka uzten
txistu danborrek nolako zarata
mututu ziren orduko soinuak
loreek nahiago beste tronuak.
Guk zure balentriaren galantari kantari
ondratu nahi zaitugu, Aita Mari.

Memoriarik bada alabaina
juzkuak ateratzen hasita
jende larri serioak ez baina
hurrek dizute eginen bisita
Donostian umeen belarritan
uhin oihartzunak dabiltz sarritan.
Guk zure balentriaren galantari kantari
ondratu nahi zaitugu, Aita Mari.

Kresalak jango ditu burdinak
urak maiztuko hondartzak
argituko dira egun urdinak
kopetilunduko zeruertzak
ahaztuko ez zaitu Donostiak
galdu arte horiek guztiak.
Guk zure balentriaren galantari kantari
ondratu nahi zaitugu, Aita Mari.